

# noaua



**22. Korrika badator**

**Udal diru laguntzak  
eskatzeko azken egunak**

**Igande honetan,  
Olatz Salvadorren  
kontzertua Sutegin**



**Apirilaren 9an,  
“Hamar” herri ikuskizuna  
Orbeldi Dantza Taldearen eskutik**

# ARATZ

zabaleta anaiak  
1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak  
Igara Bidea, 15, Donostia      erreserbak: 943 21 92 04

# Antxeta

TABERNA



proba itzazu gure  
**HANBURGESA  
BEREZIAK!**  
eramateko ere!!  619 409 198

**egunero irekitzen dugu!**

·eguneko menua (astelehenetik-larunbatera)  
·jaiegunetan: asteburuko menua  
·ogitartekoak, pintxoak, razioak,  
oilasko erreak, hanburgesak, paellak  
eramateko ere prestatzen dugu!

Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 71 38 03



Esena

Ramon

Usurbilen,  
zure auto-tailerra



# Atallu

AUTOAK >>>>

Motorra  
Balaztak  
Mekanika  
Esekidurak  
IAT-aurrekoa  
Pneumatikoak  
Ihes Kanalizazioak  
Injekzio Elektronikoa  
Berehalako Zerbitzua

DOHAIAITIK



Atallu Industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com

## Albisteak iruditan

## Elkartasunez beteriko furgoneta Ukrainarantz

**E**lkartasun uholdeak heltzen segitzen du nazioartetik Ukrainara. Eta heldu ez den laguntza bidean izango da; laster baita Usurbilen jasotakoa ere. Gure Pakea jubilatutako elkarrekin Ukrainara-Euskadi garapenerako eta lankidetzarako elkarrekin adostuta, denetarik oinarritzko gaiak biltzen aritu da azken asteotan Artzabalen duten egoitzan.

Batetik, haurrentzako higiene produktuak, pixohialak besteak beste. Elikagaiak; latak, barra energetikoak, beirazko ontzian egon ez eta galkorrak ez direnak. Azkenik, osasun zerbitzuetarako materiala: hesgailu esterilak, gazak, mantal kirurgiko esterilak, musuko kirurgikoak, arnasketa babesteko musukoak, iraungiak ez dauden sendagaiak.



Gure Pakea denetarik oinarritzko gaiak biltzen aritu da azken asteotan Artzabalen duten egoitzan.

Herritarren ekarpenak kaxetan jaso eta martxoaren 25ean furgonetan sartuta Altzara eraman zituzten, laguntza koor-

dinatzen ari diren bilketa gunera. Gero handik Ukraina aldera helaraziko dute laguntza guztia.

## Laburrean

## Intzidentzia beherantz

Otsailaren 27an azken aldiko intzidentzia baxuena detektatu ostean (317,06) etenik gabe egin du gorantz azken hilabeteetan, 713,38ra arte.

Aste hasieran ordea 634,12ra murriztu zen.

## Aginagako hilerrria itxita

Egin beharreko hustutze lanengatik Aginagako hilerrria egunotan itxita egongo dela ohartarazi du Usurbilgo Udalak. "Aurreikuspenen arabera, ostiralera arte", Usurbilgo udalak zehaztu duenez.

## NOAUA!rik ez Aste Santuan

Apirilaren 8an kaleratuko dugu Aste Santu aurreko azken zenbakia. Hurrengo apirilaren 29an. Ohar edo zorian agurrak izanez gero, apirilaren 4a baino lehen erredakzioa@noaua.eus helbidera helarazi.

# noaua

Kultur Elkarte  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Disenua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaua.eus

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak  
Euskal Herrira!



Ainhoa Azpirotz

**A**laba txikiena-eta lanbideak zerrendatzen ari dira ikastolan, Lehen Hezkuntzako 2. mailan, 7-8 urterekin. Gurasoen lanbideak zein diren komentatzen ari dira: mekanikaria, udaltzaina, irakaslea, erizaina, administraria, dendaria, banatzailea, baserritarra, kazetaria, ingeniaria, etnografoa, botikaria...

Momentu berean, 5. mailan dabilen alaba ere gai berarekin etorri da: zein zen amonaren lanbidea? galdezka. Aitona-amonen lanbideak deskribatu eta orrialde bateko idatzia egin behar dute, pentsamendua deitzen diotena.

Egoerak gure amen eta amonaren lanbideaz pentsatzera eramanez. Zein zen amonaren lanbidea? Zein zen gure amen lanbidea? Eta gurea? Emakume gehienak ezkondu eta etxean geratzen ziren seme-alabak hezten eta hazten. Edo baserrian umeak hezten, animaliak hazten eta baserriko lanak egiten. Baina lanbide hori ez dago gure umeen lanbideen zerrendan. Ez dago etxeoandrerik -are gutxiago etxeogizonik- eta zaintzailerik. Ez ditugu zerrendan sartzen, eta beraz, lan duinak, inportanteak eta funtsezkoak izan arren, ikusezin bilakatu ditugu, bai amonak eta baita amenak ere.

John Langshaw Austin hizkuntza filosofoak "hizkuntzak

## Zein zen amonaren lanbidea?



"Umeak zaintzeko eszedentzia bukatzean 'lanera itzuli naiz' esaten dugu, ordura arte etxean umeekin egindakoa lana ez balitz bezala".

### AINHOA AZPIROTZ

**"Lanbideen zerrendan ez dago ez etxeoandrerik eta ez zaintzailerik. Hitz egiteko modua aldatu behar dugu"**

errealitatea sortzen du" zioen 'Nola egin gauzak hitzekin' liburuan. Eta kasu honetan horixe gertatzen zaigula esango nuke. "Lanera noa", "lana daukat", "lanetik atera naiz"... esaten dugunean, soldatapeko lanaz ari gara, etxetik kanpoko lan ordainduaz. Umeak zaintzeko eszedentzia bukatzean "lanera itzuli naiz" esaten dugu, ordura arte etxean umeekin egindakoa lana ez balitz bezala. "Bihar goiz jaiki behar dut lanera joateko", etxetik ate-

ra aurretik egindako lanaz ezer esan gabe.

Umeen edo gurasoen zainketa lanaldi murriztua hartzen dugunean, "lana" ekonomikoki ordaindutako horri deitzen diogu, ez murrizketa horretatik kanpo geratzen den beste lan guztiari. "Ezin dut, lana daukat" esatean ere, ordutan fitxatzen den lanari buruz aritzen gara. "Laneko erreleboa aldatu dinate" esatean ez zaigu burutik pasa ere egiten etxeo lanei buruz ari garenik. "Nire amak ez du lanik egiten" esatean, etxetik kanpoko soldatapeko lana esan nahi du ume horrek. "Lanetik ateratakoan egingo ditut erosketak" esatean, garbi dago erosketak egitea ez dela lantzat hartzen.

Horrela hitz egiten baldin ba-

dugu, oso zaila da etxeo lanei eta zainketa lanei ikusgarri egitea. Zaintza erdigunean jartzeko, besteak beste, hitz egiteko modua aldatu behar dugu: "Soldatapeko lanera itzuli naiz" esan genezake eszedentzia bukatutakoan; "lan batzuk bukatu eta orain beste batzuekin ari naiz"; etxeoandrea lanbideen zerrendan sartu eta "nire amona zaintzailea eta etxeoandrea zen" idatzi lanbideen zerrendan; "nire amak etxean egiten du lan" esan ozenki. Andoni Egañak lanaldi erdia erabili daitekeela dio, baina ez pertsona erdia, pertsonekin lanean ari denak ez lukeelako inoiz pertsona-erdi ikusi behar parean. Hizkuntzak errealitatea sortzen du.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak

649 43 54 75  
943 36 72 64

IT-ak egiten dira

**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

## PSE-EEK desgaitasun funtzionala duen pertsona bat udalean hartzeko eskatu du

**P**SE-EEren udal ordezkari den Francisco Suarezek mozio bat aurkeztu du Usurbilgo Udala inklusiboago bilakatzeko. Bozeramaileak udal gobernuari eskatu dio kreditu-aldaketa bat egiteko. Ezinbestekotzat jo du 'Pauso Berriak' programan parte hartzeko diru-laguntza bat ematea, eta horren bidez, desgaitasun funtzionala duen pertsona bat urtebetez kontratatzea udalean lan egiteko. Ekimenak bat egiten du Down Syndromearen Munduko Egunaren oroimena-ekin.

Usurbil programa horren parte da, Udarregi Ikastolan 'Pauso Berriak' taldearekin lan egiten baitu 2021eko otsailetik. Ikastolan, desgaitasun funtzionala duen pertsona bat jantokia prestatu eta jasotzeaz gain, pitxerrak urez bete, txikienei jaten eman edo ogia mozteaz arduratzen da, besteak beste. Fagor Ederlanek Usurbilen duen lantegian ere lagundu zuen, jantoki eta bulego laguntzaile gisa.

Programarekin adostutako hitzarmen horren bidez, uda-



**Pauso Berriak** egitasmoari esker, Maialen Beristain Udarregi ikastolan ari da lanean. Iaz hasi zen jangelan. Argazkia: pausoberriak.net

### PROPOSAMENA

#### **Ekimenak bat egiten du Down Syndromearen Munduko Egunaren oroimenarekin**

lek, enpresek eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuek konpromisoa dute Gureak eta Atzegi elkarteekin lankidetzan aritzeko. Programaren bidez, desgaitasun funtzionala duen pertsona bat Udalean urtebetez lanean arituko da bere gaitasunetara ondoen egokitzen den postuan laguntzaile-lanak

eginez.

**Lantokia, integrazioarako gune**  
"Desgaitasun larria eta anizkuna duten pertsona asko daude lanean, baina adimen-desgaitasuna duten pertsona askok autonomia handia dute, eta ez dute laguntza handirik behar bizitza normala egiteko", eman du aditzera PSE-EEren bozeramaileak. Hori dela eta, gogorarazi du administrazio publiko eta erakunde pribatu asko lanean integratzen ari direla, desgaitasun-mota hori duten pertsonak kontratatuz.

### **Basoak hizpide, Anerrekaren hitzaldian**

Baso-eremu naturalez eta hauen zainketa hizpide izango du Anerreka ingurumen elkarteak ostegunerako, martxoak 31, 18:30ean Sutegin antolatu duen hitzaldian. Aitziber Sarobe biologoa, HUHEZIKo irakaslea, Naturkoneko partaidea eta Zarauzko Arkamurka Natur Elkarteko kidea gonbidatu dute hitzordura. "Basoak berreskuratzea da ondorengoei zor dieguna. Horretarako, baso-politika aldatzea ezinbestekoa da eta badago horretarako biderik", hortxe osteguneko "Ondorengoei basoak ezagutu ditzaten" izeneko solasaldian hizpide izango dutena.



**Aitziber Sarobe HUHEZIKo irakaslea da eta Naturkoneko kidea. Irudia: Gipuzkoako Hitz.**

## Errenta aitortzeko kanpainaren hasiera

Ogasunarekin diru kontuak argitzeko garaia heldu da. Datuak finkatuak ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Eta gogoan izan, tramiteok euskaraz bideratzeko gonbita luzatzen du urtero Usurbilgo udalerria kide duen UEMA-k eta Aldundiak berak.

Hiru dira errenta aitortzeko dauden bideak, eta guztietan euskaraz egiteko aukera. Autolikidazio proposamena jasotzen duenak, telefonoz nahiz internet bidez onartzerakoan euskaraz egin nahi dela adierazi eta "aurrerantzean Ogasunak agi-

riak euskaraz bidaliko dizkizu".

Internet bidezko modalitatean, "errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara hautatu. Aholkularitzaren bat aukeratzeko baduzu, berriaz adierazi beharko duzu aitortpena euskaraz egin nahi duzula. Beste modu batean egiten baduzu, finantza erakunde batean esaterako, euskaraz egiteko eska dezakezu".

Errenta mekanizatuaren kasuan, hitzordua eskatzerakoan Ogasunarekin euskaraz harre-

mandu nahi dela adierazi daiteke.

### **Datak**

- Apirilak 4-ekainak 30: Errenta autolikidazio proposamenak onartzea.
- Apirilak 7-ekainak 30: Errenta eta ondarearen Internet modalitatearen epea.
- Apirilak 19-ekainak 30: Errenta mekanizatuaren aurkezpena.
- Apirilak 12-ekainak 8: Errenta mekanizaturako hitzordua eskatzea.

### **Greba egun gehiago Osakidetzan**

Osasun Sailak sindikatuen aldarripenei erantzun ez dietela adierazita, greba egun gehiago deitu dituzte ELA, Satse, LAB, CCOO, UGT eta ESK sindikatuek Osakidetzan.

Apirilaren 8an Lehen Mailako Arretan, anbulatorioetan.

Maiatzaren 16an, ospitale sarean, arrakala digital, murrizketa eta pribatizazioen aurka, eta osasun zerbitzu publikoa indartu eta lan baldintza duinen alde.

# Oihane Agote: “Pandemiaren erruz 10 hilabetez egon nintzen etxera itzuli gabe”

Salisbury bizi da Oihane Agote usurbidarra due-la sei urtetik. Ikasketa amaitu eta *au pair* lanetara joan zen bertara ingelesa ikasteko asmoz. Lekuak eta jendeak liluratuta utzi zuten eta oraindik ere bertan jarraitzen du. NOAUA!rekin partekatu nahi izan du bere esperientzia.

## NOAUA! Zerk eraman zintuen Ingalaterrara?

**Oihane Agote:** Administraziora bideratutako goi-mailako zikloa egin nuen. Garbi neukan etorkizunean bide hori jarraituko nuela. Ikasketak bukatzeaz nengoela, irakasle batek industrian lan administratibo asko zegoela esan zidan eta horretan postu bat lortu ahal izateko, hirugarren hizkuntza batean ondo moldatzea garrantzitsua zela azpimarratu zidan. Hirugarren hizkuntza hori, nola ez, ingelera. Ikastolan betidanik ikasten genuen ingelera, baina ni ez nintzen oso ona. Kanpora joatea gomendatu zidan ingelera ikasi eta esperientzia berri bat bizitzera. Ideia polita iruditu zitzaidan, eta hona etortzea erabaki nuen.

## Noiz izan zen hori?

2016an izan zen. Sei urte daromatzen hemen. 20 urte nituen orduan, eta lehen aldia nuen atzerrira bakarrik joaten. Ez naiz gogoratzen nola bururatu zitzaidan ideia hau, baina



“Agentzia baten bidez etorri nintzen *au pair* gisa Ingalaterrara”.

### OIHANE AGOTE

**“Sei urte daromatzen Salisburyn. 20 urte nituen orduan, eta lehen aldia nuen atzerrira bakarrik joaten”**

agentzia batekin harremanetan jarri nintzen *au pair* gisa etortzeko. Modu horretara, ez nintzen bakarrik egongo eta familiarekin egongo nintzen. Lana egin bitartean ingelera ikasteko denbora ematen zidan aukera honek eta aurrera egin nuen. Familiarekin kontratua sinatu nuen 6 hilabeterako, urtarrila-

tik ekainera. Behin kontratua amaituta, familiak denbora gehiagoz behar zuen norbait haurrak zaintzeko eta nik ere gertatzeko gogoia nuen, kurtso bat gehiago gelditu nintzen. Behin hori ere amaituta, ingelera nahiko txukun moldatzen nintzen eta lagunak ere banituen hemen. Bi lagunekin pisu bat hartzea erabaki nuen orduan, eta lan bat bilatu nuen. Modu horretan, gaur arte.

**Au pair esperientzia batzuk oso onak izaten dira, baina zoritxarrez beste batzuk oso txarrak.**

Zorte handia izan nuen nik.

Behin hona iritsita, agentziak lagundu zidan eskola bat bilatzen ingelera ikasteko eta ikaskideen %75 *au pair* etortzekoak ginen: alemaniarrek, espainiarrek, asiarren bat... Asiarrak diru askorekin etortzen dira eta goiz eta arratsaldez klaseak izateko dirua Asiatik bidaltzen diete. *Au pair* lanetan zebilen jende asko ezagutu nuen, eta ni nintzen familiarekin gustura zegoen bakarra. Jende asko web orrialde batean familiarekin harremana eginda etortzen da, nik berriz, agentzia baten bidez egitea erabaki nuen harremana. Hala, zerbait gaizki ateraz gero, haiek arduratuko ziren niri laguntzeaz. Hiru elkarrizketa egin nituen hiru familia desberdinekin, eta transmititu zidatena ikusita aukeratu nuen nire familia. Oso gustora egon nintzen beraiekin. Nik kobratzen nuen gutxien, baina gaitzertzeakoak baino gusturago nengoan.

## ‘Tokitan’ atala

NOAUA!n zabaldu dugun atal berri honi ‘Tokitan’ izena ipini diogu. Atzerrian bizi diren usurbildar gehiago elkarrizketatu nahi ditugu txoko honetan. Egoera horretan den herritarren bat ezagutzen baduzu, bidali bere izena gure posta helbidera: [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

## “Familiarekin ingelesez egiten nuen”

**NOAUA! Lagunekin bizitzera joan zinela zenioen. Lagun horiekin gaztelera egiten duzu, edo gaur egun zure bizitza ingelesez egiten duzu?**

**Oihane Agote:** Gaur egun ingelesez bizi naiz. Iritsi nintzenean, batez ere gaztelera

hitz egiten nuen. Familiarekin ingelesez egiten nuen eta klaseetan ere bai, beraz, behar nuen erosoago sentitzen nintzen hizkuntza batean hitz egiteko tartea ere. Nire ama hizkuntza ez da gaztelera, baina erosoago sentitzen nin-

tzen gaztelera ingelesez baino. Lehenengo urtean egin nuen lagun taldean gehienak erdalduinak ziren. Lagunekin bizitzera joan nintzenean, bi lagunekin joan nintzen. Bata erdalduina zen eta bestea italiarra. Etxean ingelesez aritzen ginen, beraz.

Gaur egun, ordea, oso jende gutxi dago *au pair* modura etorri eta bertan gelditzea erabakitzen duena.

**Gaur egun, hortaz, ingelesez ezin hobeto hitz egingo duzu.** Bai, nahiko ondo egia esan.

# “Lanean hasi eta enpresak eskaintzen dizkigu baliabideak eta behar ditugun ikastaro guztiak”

**NOAUA! Nolakoa da oraingo zure egunerokotasuna?**

**Oihane Agote:** Erabakiak hartzen ari naiz zer egin ikusteko. Mutil lagunarekin bizi nintzen duela gutxi arte, baina gure artekoa amaitu egin da. Ez dakit orain zer egingo dudan, baina *au pair* etorri nintzen familiarrekin nago orain. Oso harreman ona daukat beraiekin, eta lasai eurenera etortzeko esan zidaten nora joan edo zer egin nahi dudan erabaki arte.

**Brexit-ak dena delako arazoak sortu al dizkizu?**

Ez daukat inolako zailtasunik. Brexit-a onartu zutenean jada hemen nongoen bizitzen 2016an. Brexit-aren arau berriak martxan jarri zirenean, dokumentu bat lortu nuen erakusten zuena Brexit-aren prozesua hasi aurretik ere hemen bizi nintzela. Jada hemen nongoenez, modu legal batean ezin naute herrialdetik bota. Dokumentu bat bete behar izan nuen erakusteko 2016a baino lehenagotik nengoela herrialdean. Bost urtetarako baimen bat lortu nuen horrela, eta 2024 hasieran amaituko



Brexit-a baino lehen han zen bizitzen. Horri esker, “bost urtetarako baimen bat lortu nuen. 2024 hasieran amaituko zait”.

## OIHANE AGOTE

**Salisburyko zahar etxe batean egiten du lan. “Mundua gelditu zenean konfinamendu garaian, guk etxetik atera behar genuen lanera joateko eta oso garai gogorra izan zen niretzat”**

zait. Behin 2024a iristerako nazionalitate bikoitza eskatu beharko nuke, ezkondu edo “citizen” izatea lortu behar-

ko nuke. Dokumentu bat da azken hori ere, laneko kontratu bat edo beharko nuke bertan jarraitzeko baimena lortzeko. Orain, herrialdetik kanpo bidaiatu behar dudanean, bisa behar izaten dut, Brexit bisa berezia. Nik jada bost urterako balioa duen dokumentuarekin ez dut arazorik izaten gainontzeko dokumentuak lortzeko.

**Brexit-a arazo handiegia ez bada ere zuretzat, pandemia hala ari da izaten?**

Bai, pandemiaren eraginak nabari ditut. Behin *au pair* lanak utzita, orain zahar etxe batean egiten dut lan. Osasungintza asko gustatzen zait orain, baina honetan lanean hasi baino lehen ez zitzaidan sekula esparru hori interesatu. Gurean ezinbestekoa da ikasketa batzuk eginda izatea horrelako lan batean hasteko, baina Ingalaterran ez da horrela. Lanean hasi eta enpresak eskaintzen dizkigu baliabideak eta behar ditugun kurtso guztiak. Behin lanean hasita ikasten dugu hemen. Hori da Ingalaterran gehien gustatzen zaidan gauza horietako bat, edonork dauka nahi duenean lan egiteko aukera. Pandemiak oso bortitz jo ditu zahar etxeak eta gogorra egin zait egoera. Lankideen batek positibo ematean, etxean geratu beharra gogorra da. Mundua gelditu zenean konfinamendu garaian, guk etxetik atera behar genuen lanera joateko eta oso garai gogorak ditut gozoan.

Orain kontua pixkanaka hobera doa txertaketaren ondorioz. Ingalaterran nahiko goiz hasi ginen txertaketarekin.

## “Nahikoa garbi daukat etxera itzuliko naizela”

**NOAUA! Horrenbeste urte etxetik kanpo bizita, zerbait izango duzu faltan.**

**Oihane Agote:** Janaria, batez ere. Sei urteren ondoren jada ohitu naiz hemengo janariara. Duela egun batzuk nire Ingalaterrako aitarekin hitz egiten egon nintzen eta hark galdetzen zidan niretzat zer den arraroena Ingalaterrako gastronomiari lotuta. Inolako zalantzarik gabe erantzun nion: babarrunak jatea gosaltzeko. Jateko ohiturak oso ezberdinak dira. Euskal Herrian otordurik garran-

tzitsuen askorentzat bazkaria da eta niretzat ere halaxe zen, baina hemen afaria da. Jakina, arratsaldeko 18:00etan afaltzen dute. *Au pair* lanetan aritu nintzenean, haurren bila joaten nintzen eskolara eta segituan afaria prestatzen hasten nintzen haurrentzat arratsaldeko 16:00etan. Askok kostatu zitzaidan horretara ohitzea. Ingelera ikasi beharra neukan garai hartan, eta haurrak afaldu eta 18:30 edo 19:00etarako ohera joaten ziren, eta orduan ikasten hasten nintzen. Ordu-rako ia hiru ordu afaldu nuela.

Metabolismoarentzat hobea omen da ingeles modura otorduak egitea. Oraindik ez dut 18:00etan afaltzen, baina 19:00etan edo 20:00etan bai. Oporretan etxera itzultzean, lagunekin afaltzeko geratzen naizenean, trago bat hartu eta afaltzera joateko 20:00etan geratzen gara askotan, eta ni Ingalaterran ordu horretarako lo egoten naiz.

**Non irudikatzen duzu zure etorkizuna?**

20 urterekin iritsi nintzen hona mundua jateko asmoz. Orain

gauzak gehiago pentsatzen ditut. Haurrak izan edo ezkonduko banintz Ingalaterran, uste dut ez nintzatekela gai izango bizitzeko egoera berri horiek familiarengandik urrun bizitzeko. Nahiko garbi daukat etxera itzuliko naizela. Pandemiaren ondorioz, 10 hilabete egon nintzen etxera itzuli gabe, inoizkorik denbora gehien. Eta asko pentsarazi dit nire etorkizunean. Urtean behin ziur Ingalaterrara itzuliko naizela, hemen lagun asko baitut, baina etxean biziko naiz.

# Asteazkenetako azokaren gainbehera

**D**uela 25 urte asteazkenetan ospatu ohi zuten azoka Usurbilen. Gaur egun bezalaxe. 1997an ordea, kezkatuta zebiltzan hainbat herritar galtzorian zegoen ohitura izango ote zen. Geroz eta jende gutxiago erakartzen zuten eta saltzaileak ere kezkatuta zebiltzan.

1997ko apirilko lehen alea **Ramon Uribe** preso politikoak ireki zuen. Segoviako espetxean zegoen, eta gose greba egiten hastekoa zen beste hain-

bat preso eta presoaren eskubideen aldeko zenbait elkartekin batera. Bitartean, **EAJk eta Herri Batasunak euren ika-mika jarraitzen zuten**, oraingoan EAJren erantzunarekin.

**Euskal Herrian Euskaraz** taldekoak ere kexu ziren garaiko egoera politikoaz, “euskaldunontzat ez dago justiziarik”, zioten orduan. Garaiko epaiketekin kexu ziren eta espetxe politikarekin are eta gehiago. “Euskal Herriak euskalduna eta librea izan behar du”, zioten martxoaren 15ean egin-

dako manifestazioan.

Kirol kontuetan, pilotaren etorkizunak kezkatzen zituen herriko hainbat frontoizale. **Mikel Amenabar** zubietarrak honakoa zioen: “Gipuzkoan pilota pixkanaka galtzen ari da, inertziaz funtzionatzen du erabat”. **Gipuzkoako Federazioaren** fundamendu falta ere salatu zuten.

Udaletxean, berriz, aho batez onartu zuten **NOAUA!** beste urtebetez usurbildar guztiei banatzea, eta hala jarraitu du gerora 25 urtetan.



1997ko apirilaren 4ko azala.

**Duela 25 urte**

**NOAUA! 17. zenbakia** 1997ko apirilaren 4an

## “Konortea galdu eta eltzera erori nintzen, sutara”

**C**armen Perez Gonzalez, 57 urteko emakume hau gazte zelarik etorri zen Euskal Herri aldera; lehenik Lasartera eta gero Santuenera. Guztiok ezagutu dugu bere kioskoan sartuta, goxoki eta jostailuen artean. Eta horretan dabil orain ere, Santuenean duen dendan.

**NOAUA! Zer dela eta etorri zinen hona?**

**Carmen Perez Gonzalez:** Ni Salamancako Figueros de la Bastida herri txikian jaio nintzen. Herri xumea denez, abeltzaintza eta nekazaritzatik bizi zitekeen. Baina egoera larritu egin zen eta ez genuen beste aukerarik izan. 23 urte nituelarik etorri ginen Lasarte aldera senarra eta biok lan bila.

**Eta nolatan bukatu duzu Santuenean?**

Lasarten gela alokatuta geneukan, baina oso txikia zen guretzat. Usurbilen etxeak merkeago zeudela entzun genuen eta ez genuen zalan-tzarik izan, hona etorri ginen.

**Desberdintasun handia al dago zure jaioterria eta Usur-**

**bilan artean?**

Asko gustatzen zait hemen bizitzea, benetan toki ederra da hau. Baina pentsatzen dut denoi bezala, zure lurra beti izango dela zure kuttuna. Han etxe guztietako atea irekita daude beti; nahi duzunean bertara sartzeko. Jendea askoz ere alaiagoa dela uste dut. Beti kantari eta dantzari. Baina horrelako konparazioak ez dira oso objetiboak eta...

**Beti ezagutu izan zaitugu kioskoaren barnean.**

Noski, 17 urte pasa ditut eta bertan! Pixkanaka bada ere, zenbat haur pasatuko ote ziren bertatik! Hiru seme-alaba aurrera ateratzeko eta senarraren jorنالari laguntzeko hasi nintzen bertan lanean.

**Eta zer suposatu du zuretzat?**

Gauza asko. Poza eta tristura asko eman dizkit. Azkenetatik gehiago. Batez ere, kioskoa bota egin zidatenean.

**Baina orain denda duzu.**

Bai, baina kioskoa toki hobean zegoen. Hala ere, arazo handiena ekonomikoa izan da.

**Zer dela eta?**

Lehenik kioskoa jartzeko baimena eta obrak ordaindu, gero dendarenak... Eta okerrena da Santuenean ezin duzula asko saldu. Hala ere, hemen egotea da nire eginbehar eta denbora pasa ere.

**Jendearekin tratua behintzat ez zaizu faltako.**

Ez, eta eskerrak! Horixe da nire denborapasarik onena. Orduak emango nituzke batarekin zein bestearekin hitz egiten, bai eta nirekin hitz egin nahi ez dutenekin ere. Ez naiz mendekuzalea.

**Beste denborapasarik ba al duzu?**

Nahiko gutxi, denbora ere ez baitut gehiegi. Telebista ikusten dut, baina hau egiteko ere ez dut denbora gehiegi. Bestetik, asko gustatzen zait etxekolanak egitea. Baina bestetik, sukaldari txarra naiz, horrek ez du bueltarik.

**Beharbada ez da zerbait galdetzekoa, baina nola galdu zenuen eskua?**

Nire etxean izan zen, 18 urte nituela. Errekan arropa garbitzetik nentorren eta bazkaria prestatzen hasi nintzen. Ez



**Carmen Perez Gonzalez.**

genuen sukaldarik, eta suarekin prestatzen genituen otorduak. Eltzearen aurrean nengoela, konortea galdu eta bertara erori nintzen, sutara. Gorputz gehiena erre nuen.

**Gogorra izango zen, benetan.**

Dudarik ez. Imajina ezazu 18 urteko neskatxa bat horrelako egoeran. Hiru hilabete pasa nituen ospitalean hil ala biziko egoeran. Ezin da azaldu sentitzen nuen min fisikoa. Ez eta bihotzekoa ere.

**Zer falta zaizu ikusteko?**

Nire bi alaba eta semeak lanean ikustekoa. Horixe izango litzateke nire bizitzako albisterik onena, dudarik gabe.



## 22. Korrika badator

**K**orrikak. Martxoaren 31n ekingo diote euskararen aldeko lasterketari Amurrion. Apirilaren 10ean Donostian helmugaratuko da. Tartean ohi bezala inguruotatik igaroko da; apirilaren 8an goizaldeko 6:24 aldera sartuko da Mapiletik. Ordubete inguruan Aginaga, Usurbil eta Zubieta zeharkatuko ditu.

Korrikaren bueltan ekimenak iragarri dira. Batetik, ikastetxeetako Korrika Txikiak Udarregi Ikastolan, eta Aginaga zein Zubietako eskoletan. Udarregikoien kasuan gainera, LH6 mailakoak abian duten urteroko elkartasun proiektuaren baitan, aurten AEK lagundu asmo dute. Egunotan salmenta postua jarriko dute Agerialden eta LH-ko gainerako ikasleekin batera kantaldia eskainiko dute apirilaren 5ean.

### Txokolate gozoa Aginagan

Korrika egunerako, goizean goiz igaroko denez, txokolate gozoa dastatzeko gune bana izango dugu Aginagan, Usurbilen eta Zubietan. Arratsalde parterako, ibilbide kultural bat antolatu da herrian barrena sortzaile usurbildarrekin; Etumeta AEK euskaltegi paretik abiatuko da, Artzabal aldera joko du gero eta bueltan Mikel



Korrikaren bueltan ekimen ugari iragarri dira.

### APIRILAREN 8AN

**“Lekukoa Usurbilgo hainbat eragilek eramango dute, eskuz esku”**

Laboa plazan azken geltokia. Geldialdian herriko artisten emanaldiez gozatzeko aukera izango dugu.

### Herri eragileak

Eskuz esku Euskal Herrian barrena ibili eta barruan mezu sekretua daraman lekukoa Usurbilgo eragile hainbatek hartuko dute apirilaren 8an. Kilometroak erosi dituztenek hain zuzen. Azkar saldu dituztela aditzera eman diote NOAUA!ri Etumeta AEK euskaltegitik. Segidan duzue nork hartuko duen

lekukoa eta zenbatgarren kilometroan. Datuok eskuartearen, Usurbilgo lurretan barrena 11 kilometroko bidea osatuko du 22. Korrikak. Ibilbidea azkenez bezala, Aginagatik Zubietarako noranzkoan egingo da. Honenbestez, Mapiletik hasita, N-634 errepidetik zeharkatuko du Aginaga eta San Inazioko zubitik gora helduko da Bordatxoko biribilgune parera.

Adi, hemen aldaketa dator; lehen aldiz, Kaxko inguruari bi itzuli emango dizkio Korrikak, Udarregi Ikastolako eskutik. Bordatxoko birbilgunetik gero BM saltoki paretik Errekaxikira eta Kale Nagusitik gora, udaletxeko plazara heldu eta Mikel Laboa plaza barrutik zeharkatzeko baimena eskuratu du Korrikak. Frontoi paretik

igaroko da beraz euskararen aldeko lasterketa. Handik gero, NOAUA! K.E eta Kabieneke kideen eskutik Puntapaxetik barrena Kalezarri itzulia eman, eta Aliprox pareko birbilgunetik Bizkarre aldera joko du. Handik Santueneara eta Oria ertzetik Zubieta zeharkatuko du gero.

### Lekukoa, eskuz esku

1976: Aginako Jai Batzordea eta Antxomolantxa.

1977: San Praxku Guraso Elkarte.

1978: Berriola Fagor Automation.

1979: Udarregi ikastola.

1980: LH6ko ikasleak.

1981: Noaua! eta Kabiene Elkarlan Gunea.

1982: Usurbilgo Gazte Mugimendua.

1983: Elhuyar (aurten 50 urte).

1984: Usurbilgo Udala.

1985: Zubietako Herri Batzarra eta Eskola Txikia.

1986: Usurbilgo Lanbide Eskola.

### Korrika amaiera

Usurbil ondoan amaituko da 22. Korrika; apirilaren 10ean eguerdi partean Donostiako Bulebarrean. Gero herri bazkaria eta jai giroa nagusituko dira Donostiako gune desberdinetan. Bertara joateko gonbita luzatu digute euskaltegitik.

## Korrika, egitaraua

### Martxoak 31-apirilak 7

■ 16:20-16:45 AEK laguntzeko Udarregi Ikastolako LH6-koen salmenta postua Agerialdeko sarrerako aterpean.

### Apirilak 5, asteartea

Udarregi Ikastolako LH-ko ikasleen kantaldia Usurbilgo frontoian:

■ 10:00 LH1, LH2, LH3.

■ 11:30 LH4, LH5, LH6.

### Apirilak 6, asteazkena

■ 14:30 Korrika Txikia Aginagako Eskolan.

### Apirilak 7, osteguna

■ 14:30 Udarregi Ikastolako Korrika Txikia.

### Apirilak 8, ostirala

■ 6:24 aldera 22. Korrika Aginagako Mapilera helduko da. N-634 errepidetik barrena 6:40 aldera Usurbila eta 6:50 aldera

Zubietara.

Korrika igaro ondoren, txokolate jana Aginagan Jai Batzordearen eta Antxomolantxa elkartearen eskutik eta Usurbilgo frontoian 7:45 aldera, 8:00ak aldera herri gosaria Zubietako plazan.

■ 15:00 Korrika Txikia Zubietan eta merendola.

■ 18:00 Ibilbide kulturala Etumeta AEK euskaltegitik abiatuta: musika, dantza, literatu-

ra, bertso eta abestiak... eta umorea, umorea erruz!

### Apirilak 10, igandea

■ 22. Korrikaren amaiera eguerdi partean Donostiako Bulebarrean. Segidan, egun osoko jaialdia Alde Zaharren bueltan.

### Antolatzaileak:

Eragile ezberdinak elkarlanean.



# Euskarak kaleak har ditzan

**Azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitarte izango da Euskaraldiaren hirugarren edizioa. Hamabost egun hartuko ditu ariketa sozialak, “hitzez ekiteko garaia” dela aldarrikatzeko.**

ALBA C. JAUREGI ESKUALDEA

Urte berezia da aurten-goia euskaltzaleentzat. Izan ere, pandemiak utzitako biharamuniketarik ihesi, euskal hiztun komunitatean egundoko garrantzia hartu duten bi hitzordu izango dira, aurki: lehena, udaberrian, kale-kantoiaren buelta emanda, hemen da-eta 22. Korrika. Bestalde, urte amaiera aldean ere izango da mihiak zorrozteko aitzakiarik, indartsu bezain gogoz baitator Euskaraldia: azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitarte gauzatuko da, hamabost egunez, “Hitzez ekiteko garaia” lelopean.

Orain lau udazken ekin zion bideari hizkuntza-ohituretan eragitea xede duen ariketa sozial masiboak. Hari horri tiraka, eta denborak ematen duen eskarmentuaz, aurreko bi edizioetako irakaspenetatik abiatu dira etorkizunera begirako erronkak finkatzeko. Euskaraldiko Gipuzkoako koordinatzaile orokorra da Sara Saizar, eta ezinbestekotzat jo du hitzaren eta ekintzaren arteko uztarketa, euskararen normalizaziorako bidean: “Herriarrek nahiz entitateek euskarazko praktikak hedatzeko urratsak ematea da Euskaraldiaren lan-jardunaren egiteko-rik behinena”.

Hori horrela, aurten, “jauzi kualitatibo bat emateko apustua” egin du antolakuntzak, Saizarrek adierazi lez, “ariketa-aren berezko funtsari garrantzia emateko”. Horrez gain, parte-hartzea hedatu nahi dute,

hots, Gipuzkoako koordinatzailearen esanetan, sektore berrietara iristea da helburua: “Ariketa ikusgarria egin behar dugu, eta, horretarako, kaleak hartu nahi ditugu, bai eta txapen presentzia areagotu ere, komunitate izaera egonkortzeko”. 2020ko edizioaren ostean, Siadeco elkarteak egindako ikerketaren arabera, txaparen eragina “ukaezina” da: “Ingurukoek eurekin euskaraz egin dezaketela adierazteko erabiltzen du gehiengoak. Nafarroan altuagoa da portzentajea, eta adierazi dezake identifikatzeko behar handiagoa dagoela bertan, euskal komunitatea sortzearena”.

Lorpenetan ipini dute aurten begirada, eta, horretarako, erronka pertsonalak hartzeko gonbitea luzatzen diete antolatzaileek ahobiziei nahiz belarriprestei. “Konpromisoarekin lotura zuzena duen hitzordua da”, azaldu du Saizarrek. Amua Euskaraldiak bota arren, “nork bere erronkari eutsi behar dio, ariketa soziala unean uneko premietara egokitu ahal izateko”.

## Hirugarrena, erraztasunekin

“Hirugarren edizioa bigarrenaren jarraipen” gisatzat dute antolatzaileek eta aurten ere bi roletan aritzeko aukera izango dute 16 urtetik gorako euskal herritarrek: ahobizi edo belarriprest. Ariketa eraginkorra egite aldera, izen-ematea sinplifikatu dute. Hala, soilik, parte-hartzaile berriek eman beharko dute izena. Alegia,



2020an, Usurbilgo hainbat entitatek Euskaraldiarekin bat egin zuteneko irudia.

aurreko edizioetan ariketa egin duten herritarrek, beren parte-hartzea berrestearekin nahikoa izango da.

Horrez gain, ariguneek ere garrantzia izango dute ariketarik irauten duen hamabostaldian, entitateek ere euskararen aldeko konpromisoa har dezaten. Berrikuntza moduan, ez da bereiziko kanpo- edo barne-arigunerik; guztiak multzo berean sailkatuko dira.

## Atzera begira jarrita

Norbanakoen nahiz entitateen harremanetan oinarritutako ariketa da Euskaraldia; alabaina, jendarteko makina bat esparrutan bezala, horretan ere pairatu ziren pandemiaren albo-kalteak 2020. urteko edizioan: nola egin ariketa soziala, hartu-emanak galarazi ziren sasoiotan?

Ipar Euskal Herrian, esaterako, herritarrek etxean sartuta gauzatu zen Euskaraldia. EAEn, bestalde, itxita egon ziren tabernak eta askotariko ariguneak. Egoeraz jakitun, pozik agertu zen antolakuntza bigarren edizioaren emaitza onekin, Saizarren aburuz: “Baldintza horietan egin izate hutsa bada jada arrakasta. Euskara alboratu zen pandemiaren eraginez, eta gure hizkuntza mahaigainetatzeko eta erdigunean ipintzeko beta eman

zuen Euskaraldiak”. Halaber, are modu ageriagoan utzi zuen osasun-larrialdiak herri-batzordeen garrantzia, besteak beste, beren egitekoa kalera ateratzea delako, bai izen-ematean, bai tailerren bidezko pedagogia sozial-lanetan. Batzordeak Euskaraldiaren “bihotza” direlakoan da Saizar: “Zazpi probintzietan egiten da ariketa, baina, tokian toki, nork bere txokora egokituta gauzatzen da, eta horretarako dira batzordeak, beraiek ipintzen baitute martxan ariketa; ezinbestekoak dira Euskaraldiak aurrera egin dezan”. Hala, azkar baino lehen hasiko dira Buruntzaldea eskualdeko eragileak lanean, urte amaierara begirako pres-taketa-lanetan.

Horregatik guztiagatik, “proposamen aktiboa” da Saizarrentzat Euskaraldia, herritarrek martxan ipintzen dituelako: “Kontzientzia hartzetik asko duen ariketa da, eta, erronkak iraun bitartean, gora egiten du euskararen erabilerak, bai eta hamabostaldia bukatuta ere”. Horrez gain, zer pentsatua ematen du hitzordua, eta aurretiko zein ondorengo erantzukizuna eskatzen dio parte-hartzaileari, euskararekin duen harremanaz hausnartzeko, bai eta horri bultzada emateko ere. Izurriteak izurrite, euskara indarberritu dadin, kaleak har ditzan.

# BADATOR EUSKARALDIA!

2022ko azaroaren 18tik  
abenduaren 2ra ilusioz,  
arduraz, gogoz eta emozioz  
ekingo diogu ariketari.


Kaleak beteko ditugu berriz ere,  
euskaraz hitz egitea inoiz baino  
errazago izan dadin.

Belarriprestok eta ahobiziok  
aukera berriak izan ditzagun  
lan egingo dugu elkarrekin,  
auzoz auzo, herriz herri  
eta arigunez arigune.

Hitzez ekiteko garaia heldu da



EUSKARALDIA



HAU DA LIRDINGA!

# Sudokuak

Behoko sudoku hauek gaineko irudiko laguntxoekin ibilerarekin dute zerikusia. Barraskiloa ASTIRO doa beti, eta erbia, berriz, ARIN. Osa itzazu bi sudokuak, hutsik dauden laukietan behar diren hizkiak idatziz (seiko sudokuan A, S, T, I, R eta O, eta laukoan A, R, I eta N).

Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

R	I	T	O		A
O				R	T
S			A		I
T	A		R		S
I		R			O
A	O		T		

R	N		
	I		N
I		N	A
			R

# Bilatu

Animalia hauetatik bat ez dago mundu-mapan. Zein?



# Handitik txikira

Ordena itzazu hartz hauek handitik txikira, 1etik 9rako zenbakiak erabiliz (handienari 1 eman eta txikienari 9).



ZER DA AZIDO AZETILSALIZILIKOA?

NOLA EGITEN DU ERLEAK BURRUNBA?

KAKA ETA GOROTZA GAUZA BERA AL DIRA?

NON DAGO UNIBERTSOA?



NOLA SORTZEN DIRA UMEAK?

Nola lortzen dira erantzunik gehienak? GALDETUZ, jakina. Hitz ederra, sudoku handi hau osatzeko. Zortzi hizki dituzu hutsuneak betetzeko (G, A, L, D, E, T, U eta Z).

	Z		G	E		U	
		D		Z	L		G
A	T		U	G			L
G	L	E	D	U	Z	T	A
		G	Z		U		T
	U		A	D	E		Z
D	G			T	A		E
	A	T			G	D	



# Hara!


Gaixoak pinguinoak!  
Laster beren bizimodua egokitu beharko dute, Lurraren temperatura igotzen ari baita. Beno, baina hemen ez dirudi horren gaizki daudenik ere, ezta? Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 16 dira guztira.



# DOMINOAN



Bete itzazu lauki zuriak domino-zati honek zentzua izan dezan.



Eguzkia · Lurra · ilargia · meteorittoa · planeta · izarra

# Hamargarrena, barrukoa plazaratzeko

**H**amar izena du Orbel-dikoek apirilaren 9an plazaratuko duten herri ikuskizunak, Muxurbil taldeko kideekin eta Santueneko bandakoekin. Hamargarren ediziora heldu baita Dantza Eguna eta jorraturiko ibilbidearen ispilu izan nahi dute astebete barruko ospakizunek; bai urteotako kideak bildu nahi dituen herri bazkari irekiak nahiz gaueko emanaldiak.

“Dantza erdigunera ekarri dugu”, adierazi diote NOAUA!ri Orbelditik, hamarkada honetako ibilbidearen balantzeaz galdetu ostean. Herriak berez duen izaera dantzaria nabarmentzen du Orbeldik, eta alde horretatik, “haurretatik hasi eta helduetaraino ekintza parte hartzaile bat egiten dugu”. Inklusiboa, denontzat.

Urteotako ibilbideak norabidez aldarazi die halere. “Hasieran dantza tradizionalari balorea emateko ekitaldia prestatzea zen helburua”. Gero ez zuten espero ordea “dimentsio hau hartuko zuenik”. Dantza ezberdinak uztartzen dituen zikloa eskaini ohi dute. Azken urteotan gainera bai haurren zein dantza talde helduen topaketak ere antolatzeari ekin diote. Urteroko erronka dute tamaina honi eustea eta aurrera begira, “horretan jarraitzen saiatuko dugu”.

Binomio bereiz ezina dugu



“Dantza erdigunera ekarri dugu”, adierazi diote NOAUA!ri Orbelditik, hamarkada honetako ibilbidearen balantzeaz galdetu ostean.

## ‘HAMAR’ IKUSKIZUNA

**Orbeldiren barruan bizi dutena eta sarritan ikusten ez dena irudikatuko dute**

egun Orbeldi eta “mimo bereziz” prestatzen duten Dantza Eguna. “Dantza Egunaren sorrerak helduen taldeak egonkortzea eragin du eta horrek Dantza Egunak indarra izatea. Bata eta bestea ezinbestekoak dira”.

Eta apirilaren 9rako antolatu dituzten hitzorduetan ikusi ahalko dugu, tartean urteotako kideak bildu nahi dituen herri bazkarian. Bazkalosterako iaz estreinatutako tranpaldo irekia deitu dute. Nahi duenari koreografia bat eskaintzeko ohol-tza eskainiko diote. Heldu eta gazte batzuk jada izena eman dute. “Iaz batez ere haurrek

eman zuten izena. Oso koreografia ederrak eskaini zituzten. Usurbilen dantzari belaunaldi berria indartsu dator, ez soilik koreografiak sortzerakoan, baita tranpaldoa zapaltzerakoan ere”.

## “B aldea” plazara

Hamarkada honetan barruan bizi dutena eta sarritan ikusten ez den eremu ezkutuago hori plazaratu nahi dute ‘Hamar’ ikuskizunarekin. Ikusten ez dugun “B alde” hori buruz galdetuta, “elkarlana, poztasuna, lanerako gogoia” izan dutela bidelagun aipatu digute Orbeldikoe. “Saltsa jartzen duten gazteak, dantza taldearen enborrak diren tartekoak eta plazara agertzearekin txaloka hartzen dituzten emakumeen taldea”. Haiekin guztiekin eskainiko dute astebete barruko ‘Hamar’ ikuskizuna.

## Egitaraua

**Apirilak 9, larunbata:**

### 10. Dantza Eguna

- 12:00 Dantza-kalejira Mikel Laboa plazatik abiatuta.
- 14:00 Herri bazkaria Ageialden. Txartelak apirilaren 3ra arte, Txiribogan eta Artzabalen salgai 15 eurotan. 25 eurotan kamiseta eta guzti.
- 17:00 Tranpaldo irekia Ageialden. Izen ematea: usurbildantzan@gmail.com
- 22:30 ‘Hamar’ ikuskizuna frontoian.
- Amaitzean, Rukula taldearen kontzertua.

**Apirilak 30, larunbata:**

### 5. Dantzari Topaketa

- 16:00 Harrera dantza-talde gonbidatuei.
- 17:00 Kalejira udaletxetik abiatuta.
- 19:30 Dantza-emanaldia frontoian.
- 23:30 Erromeria Alaiki taldearekin.

**Maiatzak 7, larunbata:**

### 3. Dantzari Txiki Eguna

- 10:00 Harrera dantza-talde gonbidatuei.
- 11:00 Kalejira udaletxetik abiatuta.
- 13:00 Dantza-emanaldia frontoian.
- 17:30 Dantza gidatuak Ttipika taldearekin frontoian.

Antolatzailerak: Orbeldi D. T.

## Ana Isabel Elizondo, erromeria taldea: “Dantza Eguna sakratua da”

**NOAUA! Zer da Dantza Eguna zuretzat?**

**Ana Isabel Elizondo:** Ondo pasatzeko egun bat. Dantza Eguna sakratua da, ospatu gabe utzi ezin dugun eguna.

**Hasieratik zabilta?**

Bigarren urtean hasi ginen dantzan.

**Nolatan animatu zinen?**

Txikitatik ibili naiz dantzan. Usurbilen aukera sortu zenean, seguru nekien horra joan behar nuela. Saloi dantzetan ere aritutakoa naiz eta izugarri gustuko dut.

**Jendea ezagutzeko aukera eskaini dizu.**

Gure afariak, irteerak, bodegak egiten ditugu. Horregatik, dantza gustatuz gero animatu.

**Zuen taldeak ze bilakaera izan du?**

Kide pilo hasi ginen, gero talde guztietan gertatzen dena, betikoak geratu gara. Eskola zaharrekoak. Orain gu gara baita Orbeldiko talde handiena.

**Aurreraterik bai zer ikusiko dugun apirilaren 9an?**

Dantza Eguna nola prestatzen dugun.



“Txikitatik ibili naiz dantzan”, azaldu digu Ana Isabel.

## Marta Agirre eta Iñaki Maritxalar, oinarrizko dantza taldea: “Orbeldiko adin nahasketa aberatsa da herri baterako”

**NOAUA! Zer da Dantza Eguna zuentzat?**

**Marta Agirre:** Ilusioa, elkarrekin partekatzen ditugun emozio politikak.

**Iñaki Maritxalar:** Poza, ilusioa, ondo pasatzea. Dantza Egunean ateratzea hautazkoa da. Lehenengo aldiz aterako ote ginen galdetu eta denok baietz esan genuen.

**Talde barruko dinamika ez dugu ikusten. Nola deskribatuko zenukete?**

**M.A.:** Elkar laguntzen gara.

**I.M.:** Familia antzeko bat sortu da.

**Zer eman dizue dantzak?**

**I.M.:** Mugitzeko beste arrazoi



“Familia antzeko bat sortu da”, esan digute Iñakik eta Martak.

bat. Ariketa pixka bat egiteko aukera duzu, beste modu batean, musikarekin eta gozatu egiten duzu taldean.

**M.A.:** Gozatzeko ueña.

**Zer jaso du herriak Dantza Egunetik?**

**M.A.:** Ikuskizun herrikoi bat, herriko jende askok parte hartzen du.

**Orbeldi Dantza Taldeak herria egiten lagundu du, ezta?**

**M.A.:** 15 urtetik 70 urterako jendea dago. Orbeldiko adin nahasketa aberatsa da herri baterako, azkenean beti bereizten gara gure adinekoen artean.

**Beste 10 urte betetzeko moduan?**

**M.A.:** Gure taldean nabaritu da jende gutxiago dabilela, pandemiak ere eragin du pixka bat. Aurrerago jende gehiago animatzea espero dugu.

**I.M.:** Herriak beste 10 urtez uzten badigu hor egongo gara, eta antolakuntza talde bat badago baita, lan handia egiten baitu eta lan hori ez da ikusten.

## Eider Goikoetxea eta Udane Valin, Euskal Dantzen Taldea: “Dantzarekin jendeari arnasmune bat eskaintzen zaio”

**NOAUA! Zer da zuentzako Dantza Eguna?**

**Eider Goikoetxea:** Urte osoan zehar landutakoa plazaratzeko aukera eta dantza bera bul-tzatzeko ekimen bat da, denok ondo pasa eta herria ondo pasazazteko.

**Udane Valin:** Orbeldiko kide guztiok harremantzako ueña da bai entsegetan eta egunean bertan eta dantzatzeko duguna plazaratzeko, beraiek ikusi eta animatzeko.

**Dantza Egunak zer eman dio herriari 10 urteotan?**

**E.G.:** Dantza eta euskal kulturaren sustapena eta bizipoza.

**10 edizioetan parte hartu duzue?**

**U.V.:** Azken lautan edo. Txikitari dantzan aritu ostean, DBH4n sartu ginen gu.

**Ze bilakaera izan du Dantza**



“Dantza Egunak jarrera oso ona izan du beti”, esan digute Eiderrek eta Udane, Egunak urteotan?

**U.V.:** Harrera oso ona izan du beti, jendea asko animatzen da bai egunean zehar eta gauean parte hartzera, urtetik urtera jende gehiago.

**E.G.:** Beti kutsu magiko, mistiko bat ikusi izan diot.

**Dantza Egunak Orbeldi ere elikatzen lagunduko du.**

**E.G.:** Urte osoko jarduna ez dugu Dantza Egunean zentratzen baina bada herriari begirako urteko emanaldi potenteena, gehien prestatu eta zaintzen dena.

**Zer dakar hamargarrenak?**

**E.G.:** Gure ibilbidea zer nolakoa izan den eta gaur egun zertan ari garen plazaratzeko dugu.

**U.V.:** Azkenean jendeak ez daki Dantza Egunak atzetik zer prestaketa lan duen. Hori ikusarazi nahi dugu. Oso ikuskizun polita izango da. Animatu dadila jendea ikustera eta nahi duenak dantza taldean izena ematera.

**Nolakoa da ikusten ez dugun beste alde hori?**

**E.G.:** Astean ordu pare bat edo gehiago pasatzen ditugu bai bileran eta entsegetan. Harremantzaren gara, bazkariak egiten ditugu eta giro polita sortzen da.

**U.V.:** Dantzaren bidez adin tarte ezberdinetako herritarren artean harreman bat sortzen da, bazkari, entsegu edo bileretan.

**E.G.:** Dantzarekin batera beste gauza asko ere lantzen ditugu eta jendeari beste arnasmune bat, lasai egoteko gune bat eskaintzen zaio.

## Kantu Taldea kaleetara itzuli da



Abeslariak kaleak hartu zituzten eguraldi ezinhobearekin.

Larunbat goizean itzuli zen kantu-jira Usurbilgo kaleetara. Pandemiak gogor jo zuen taldearen egunerokoa eta bi urte beranduago izan bada ere, kaleak hartu zituzten abeslariak eguraldi ezinhobearekin.

Mikel Laboa plazan elkar-tu eta lehen abestiekin jendea hurbildu bazitzaizen ere, bizilagunen bat ez zegoen oso pozik taldearen itzulerarekin,

bi jogurt bota baizizkien lehotik abeslariari eta bat baino gehiago zikindu zuten. Gai-nontzean, herriko hainbat tabernatan ibili ziren giroa alaitzen. Euskal abesti zahar-rak, modernoagoak eta Korsikan azken astean gertatutako hilketaren harira, Korsikako herria ere gogoan izan zuten abestiekin eta bandera aterata.

## Gazte Martxan parte hartzeko deia



Herriko musikariek girotu zuten Ernaik antolaturiko ekitaldia.

Apirilaren 14tik 17ra Baztanen ospatuko den Gazte Martxa aurkeztu zuten Aitzaga aurrean ostiral arratsaldean. Baztanera joateko autobusak antolatuko dituzte eta nahi duten herritarrek parte hartzeko aukera izango dute.

### Ekitaldi ugari

Ernaik Baztanen antolatutako jardunaldiak aurkeztu zituz-

ten herrian. Amaiurko gazte-luaren setioaren bostehungarren urteurrenari keinu eginez, "BostEHun eta zutik!" aldarri-pean Zugarramurdi, Erratzu eta Elizondo lotuko dituen jardunaldiak antolatu dituzte. Tailerrak, kontzertuak, hitzaldiak... denetariko ekitaldiak egingo dituzte lau egunetan, Iruñean azken ekitaldiarekin amaitzeko.

## 'Tipularen sehaska kanta' dokumentalaren proiektzioa



Filmaren zuzendariak amaierako solasaldian hartu zuen parte.

Lander Garrok zuzendutako "Tipularen sehaska kanta" dokumentala eskaini zuten igande arratsaldean Sute-gin. Kartzelan gaixorik dauden edo egon diren presoek bizipenetan oinarritutako

dokumentalak hainbat herritar erakarri zituen Sute-gira. Amaieran, Lander Garro berarekin solasaldia egin zuten dokumentalaren eta presoek nondik norakoak ezagutzeko.

## San Ferminetarako girotzen



Iruñeko Peña Alegriakoak Usurbilen izan ziren larunbatean.

Martxoaren 26an herrian gertatzeko aukera izan zuenak jai giro betean murgiltzeko aukera izan zuten, Iruñetik etorritako bisitariekin. San Fermin jaietako Peña Alegriako kideak bisitan izan

genituen egun pasa herri poteoan, Igandea txaranga-gako kideekin batera.

Pandemia aurretik inguruotako sagardotegira etortzeko ohitura berreskuratu dute aurrean.



# Diru laguntzak eskatzeko azken egunak

**M**artxoaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituen Usurbilgo Udalak herritar nahiz eragileen esku jarri dituen diru-laguntza lerro ezberdinei buruzko xehetasunak. Hainbat lerroetan eskabideak egiteko azken egunak dira honako hauek. Gogoan izan, “elkartek, pertsona juridiko gisa, telematikoki eskatu beharko dituzte dirulaguntzak, legeak hala ezarrita”.

## Udal dirulaguntza lerroak

Desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikikoen osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako dirulaguntzak

■ Xedea: tratamenduon kostua edo kostuaren zati bat diruz laguntzea. Hauek: fisioterapia, terapia okupazionala, osteopatia, logopedia, psikomotrizitatea, psikoterapia-psikologia, terapia bereziak eta optometria-terapia bisualak.

## Gizarte bazterkeria egoerak saihesteko

■ Xedea: Pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun-, babesgabezia- eta bazterkeria-egoerek pertsonen eta familiei sortzen dizkieten beharriaz aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea. Larrialdi-egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharriaz aurre hartu eta erantzutea.

■ Informazio gehiago: Martxoaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.



Udal diru-laguntzak eskatzeko epea ixtear da.

## BALDINTZA

**“Elkartek, pertsona juridiko gisa, telematikoki eskatu beharko dituzte dirulaguntzak, legeak hala ezarrita”**

## Deserrotze eta bazterte sozialerako arriskuan diren pertsonen senideentzako laguntza

■ Xedea: joan-etorri gastuetarako laguntza Usurbildik kanpo dauden pertsonen senideentzako eta erabaki judizial bat betetzearen ondorioz zentro psikiatriko batean, kartzelan edo drogamenpekotasun zentro batean aldi batez haien ingurune familiarra etorri ez diren pertsonen senideei.

## Hasiz Hazi Beka

■ Xedea: Kabiainen urtebeteko egonaldia diruz laguntzea proiektu bat garatzen ari den Beterri-Buruntzako ekintzaileari. Gehienez, 1089 euro.

■ Oharra: eskaeren lehen ebazpena maiatzaren 31n eta bigarrena

irailaren 30ean jakinaraziko da.

## Merkataritza lokal hutsetan jarduera ekonomiko berri bat jartzeko

■ Lokalaren alokairu edo erosketak gastuak ordaintzeko laguntza.

■ Laguntza: gehienez 5.500 euro hasierako gastuetarako. Gehienez 300 euro hileroko alokairua lehen urtean ordaintzeko, gehienez 200 euro bigarren urterako.

■ Zehaztasunak: lehentasuna izango dute herritarrei eskaintzen ez zaizkien zerbitzuekin lotura duten proiektuek. Baita ixtera doazen edo itxi berriak izan diren jardueren jarraipenekoak diren proiektuek.

■ Oharra: Lehen ebazpena maiatzaren 31n eta bigarrena irailaren 30ean jakinaraziko da.

## Kultur sorkuntza

■ Xedea: Usurbilgo artisten sorkuntza prozesuak diruz laguntzea. “Honako helburuak ditu: sormena bultzatu; kultura sare eraldatzaile, dinamiko eta parte-hartzailea sustatu; he-

rritarrek goza dezaten kultur eskaintza erakargarria, anitza, hurbila eta eskuragarria sortu, eta, era berean, bertako kultura balioan jarri eta gizarte integratzailea eraikitzen lagundu”.

■ Zenbatekoa: eskatzaile bakoitzeko muga 3.000 euro.

## Norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko diru-laguntzak

■ Laguntza: laguntza bereziak, taldeetako prestakuntza teknikoak, kirolarien oinarrizko osasun miaketak, eskolaz kanpoko kirol jardueretan parte hartzeko diru laguntzak.

## Igogailuak instalatzeko

■ Xedea: herrian bi solairu edo gehiago izan eta nagusiki etxebizitzarako erabiltzen diren eraikinetan igogailua instalatzeko.

■ Zenbatekoa: eskaera bakoitzeko gehienez 1.000 euro.

## Etxebizitza alokairuan hartzeko

■ Xedea: ohiko bizilekua den eta errentan hartua duten etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzea, gainerako laguntzarako eskubiderik ez badute.

■ Laguntza: 2021eko alokairu gastuak.

## Dirulaguntza programen deialdi irekia:

Gizarte zerbitzuetako, ingurumeneko, nekazaritza eta abeltzaintzako, kirol elkarten ohiko egitasmoak nahiz kirol egokitutako jarduerak, kultur arloko egitasmoak laguntzeko.

**Otar-Goxo**  
Elkagaiak  
Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

**Inaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com  
**600 024 825**

Zuen publizitatea hemen  
943 360 321  
publizitatea@noaua.eus

**GAR**  
GRUPO MONROY  
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK  
943 53 72 38  
628 45 78 39 628 91 72 15  
reformas@reformasmonroy.com  
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

# Zubieta, Batzar Nagusietako hizpide

Udal barrutiak arautzen dituen foru-arauaren berrikuspena eztabaida prozesu betean da Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Herri nortasuna duten Gipuzkoako eremu ezberdinetako ordezkariak, teknikariak, adituak hitza hartzen ari dira azken aldian gipuzkoarren parlamentuan.

Iragan astean, Zubieta hartu zuten ahotan. Kasu berezia, bakarra Gipuzkoan eta Euskal Herrian, bi udalerriren artean berezia dagoen eremua baita. Herri izaera duena. Herri Batzarreko nahiz Donostia zein Usurbilgo udaleko alkateek agerraldia egin zuten martxoaren 23an.

## “Ez zaigu galdetzen”

“Ez dago horrelako beste kasurik ez Gipuzkoan ezta Euskal Herrian. Herri izaera duena, nahiz administratiboki bi udalen mende egon”, gogorarazi zuten Jon Arroyo alkateak hitzar hartu zuenean.

Zubieta aurkeztu zien batzarkideei. 523 biztanleko landa eremua, nekazal lurren aberastasuna, herri ondare aberatsa (Aizpurua baserria, Andatzako ondarea, errebotea...)

Historikoki antolakuntza modu propioa izan dutela gogorarazi zuten Herri Batzarreko kideek. “1376an Zubieta unibertsitatea zen, bere zergak eta guztia kudeatzen zuten”. 600 urte beranduago ere “1976an zergak kobratzen ziren”. Gerora, zubietarren borrokari esker 1996an hauteskunde



Kasu berezia da Zubietakoa. “Bakarra Gipuzkoan eta Euskal Herrian, bi udalerriren artean berezia dagoen eremua baita”.

## AGURTZANE SOLABERRIETA

**“Zubietarren erabakitzeo eskubidea babesten dugu”**

bidez hautaturiko Donostiako eta Usurbilgo lurretako hiruna ordezkariarekin osaturiko Herri Batzarra osatu zuten.

26 urteko ibilbidearen ostean ordea, “desilusioa eta etsipena da nagusi”, Arroyoren esanetan. Eguneroko jarduna oztopatsua dela azaldu zuten. “Kudeaketa eredu eta sentsibilitate ezberdineko bi udalekin gaiak adostu beharrak, gaiak aurrera eramatea asko moteltzen eta mugatzen du”. Eta horren eragina inork aurkeztu nahi ez izatea Herri Batzarreko, “alferrikako lan batean aritzeko bolondres”.

2019an zerbitzuak koordinatu eta eraginkortzeko bi udalekin adosturiko hitzarmena aurrerapausotzat jotzen dute. “Baina ez dena betetzen da bi udalek bere garaian hartu zu-

ten konpromisoa zerbait egiterakoan guri kontsultatzekoa. Ez zaigu galdetzen”. Adibidez, jarri zituzten Zubieta gaineko proiektuak. “Erraustegiarekin edo industriagunearekin zer kontsulta egin diren. Ez dute araudia errespetatu”. Eta eraikitakoak diotenez, “ez dira zubietarrentzako zerbitzuak”.

Erabakitzeo gaitasun falta dutela nabarmendu zuten Batzar Nagusietako agerraldian. Eta Haritz Arrizabalagak zioenez, “herrian arnasten denagatik uste dugu, hasteko, autonomia gehiago nahi dugula”. Tresna antzutzat jo zuten Herri Batzarra, eta Batzar Nagusietako foru arauaren berrikuspen prozesuak “ilusioa berpiztu dezakeen bide berri baten aukeran pentsarazten dugu”. Abiapuntu bezala, “bai asetuko liguke tokiko entitate txikia izatea”. Eta horretarako, bi udalen mende dagoen herri bakarra izanik, kasu berezi hau foru-arau horretan txertatzea eskatu zuten. “Herri berezia gara, gure berezitasun honek

ez diezagula herri izateko ilusioa zapuztu”.

## “Zubietari errespetua zor zaio”

“Guretzako Zubieta bat eta bakarra da, nortasun propioa duen herria”, nahiz udalerrria ez izan. Eta etorkizunera begira, “zubietarren erabakitzeo eskubidea babesten dugu. Nor dira bere herriaren orainaz eta geroaz erabakitzeo”, zioen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak Batzar Nagusietan egin zuen agerraldian.

Zubietarekiko dugun begirada aldatzeko beharraz mintzatu zen. “Zubietarekiko dagoen ikuspegi utilitarioa alboratu eta errespetua zor zaio”. Besteak beste errespetu historikoa. “Usurbil hiribildu egin zenerako, Zubietak unibertsitatea zuten, lurralde autonomoa zen”, XIV. mendean bi udalerriren artean zatitua geratu zen arte.

1996ko Herri Batzarren sorrera ekarri zuten gogora. “Nolabaiteko gestio gaitasuna” aitortzen dio Zubietari, “baina ez du inolako babes juridikorik”. 26 urteotako ibilbidean “argi ilunak daude, bistan da”. Nahiz eta sorreran, Zubietaren batasuna aitortu, praktikan “ez da herri gisa hartzen”. Besteak beste, “hirigintza antolamenduetan edo eragin handiko eskuhartzeetan”.

Adostu ez bezala gainera “Zubietan azken urteotan gauzatu diren proiektu askoren inguruan ez zaie galdetu zubietarrei eta hori bazen gure eginbeharretako bat”. Informazioa partekatu eta jakinaraztea.

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
ASTEARTETIK-LARUNBATERA  
8:30-13:30  
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI  
650 31 31 91 USURBIL

**EROSKI** / city  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**ZENDOIA**  
**ENE**A taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

# Eneko Goia, “deszentralizazio asimetrikoaren alde”

Errealitate hau iraultze-ko eginiko ahaleginen adibide gisa jarri zuen 2019an Herri Batzarrak eta bi udalek zerbitzu eta azpiegi-tuen kudeaketa eraginkortzeko adosturiko hitzarmena. Edota Usurbilgo Hiria Antolatzeko Plan Orokorrean txertatuko den Zubietaren etorkizuna marrazteko egindako prozesua, hiru erakundeak bidelagun zirela. “Ezin diogu Zubietari begiratu zona berde esplotagarri bat balitz bezala. Duen izaera errespetatu eta sendotzea me-rezi du eta hala egitea eskatzen dizuet”, zioen Usurbilgo alkateak.

Aurrera begira, eta Batzar Nagusietan bideratzen ari diren eztabaidari dagokionean, egun “oztopo dena aukera bihur dezakegu?” galdetu zuen. Zubietaren errealitateari foru arau horren baitan tokia egitea eskatu zuen. “Aukera bat izan liteke Zubietarentzat, zubieta-rraren borondatea errespetatuko duen marko bat garatzeko”.

Donostiako Udalarekin batera Herri Batzarraren eraginkortasuna gogoeta bat egitearen alde agertu zen. “Balía dezagun aukera hau guk ere etxeko lan horiek egiteko”. Usurbilgo Udaletik laster, alkateak iragarri zuenez, “gogoeta bat abiatu nahi dugu udal barruan auzo ordezkariekin batera, udal eta auzo zein herrien arteko funtzionamendua iraunkortu, egonkortu eta arautzeko”. Helburu argia du Udalak: “auzo



Donostiako Udalarekin batera Herri Batzarraren eraginkortasunari buruzko gogoeta bat egitearen alde agertu zen Usurbilgoa.

## ENEKO GOIA

**Errealitate bakoitzari “erantzun egokiena ematen” ahalegintzearen aldeko apustua egin zuen**

eta herrien guztien Usurbil eraiki nahi dugu”.

Zubietaren armariak irudikatzen duen zubia gorai patuz, “eraiki ditzagun besteak beraz Zubietarekiko loturak”.

## Goia, deszentralizazio asimetrikoaren alde

Donostiak bere baitan errealitate ezberdinak dituela aitortuta, “deszentralizazio asimetrikoaren alde” agertu zen hiriburuko alkate Eneko Goia. Alegia, errealitate bakoitzari “erantzun egokiena ematen” ahalegintzearen aldeko apustua egin zuen. Horretarako ordea, administrazio gisa modu deszentralizatuan jokatzeko “gure egitura ez dago egokitu” aitortu zuen.

Zubietara etorrira, ez zuen argi ikusten “zein izan dai-

tekeen formula”. Lantzeko prest agertu zen. Partzuergo eratzeko bidea aztertzen aritu zirela adierazi zuen, baina bideraezina zela, “ordezkariak bi udalerrietako zinegotziak” izango liratekeelako. Halere, “erantzun bat emateko modua bilatu beharko genioke”, beti ere “nortasun juridikoaren langa” gaintuta. Finantziazioa gai gakoetako bat dela aipatu zuen, “eskuduntza eta eraketaren arabera, finantzaketaren beharra ezberdina izango da” eta horrek Gipuzkoan izan dezakeen eragina aztertu beharko litzatekeela zioen. “Ondorioek erakundeetan ere eragina” izango dute eta Goiaren esanetan.

Zubietaren kasua bitxitat jo eta ikuspegi horretatik aberasagarritzat jo zuen Zubietako errealitatea. Lorpentzat jo zuen 2019an Herri Batzarraren eta Usurbilgo Udalarekin erakunde bakoitzaren zereginak koordinatu eta zerbitzuak eraginkortzeko adosturiko hitzarmena.

## Batzarkideak, Zubietaren egoera bideratzearren alde

Hiru erakundeen agerraldietan zehar, batzarkideek ere hitza hartu zuten. Elkarrekin Gipuzkoa taldeko ordezkari Arantza Gonzalezek Zubietaren berezitasuna nabarmendu zuen. “Egoera administratiboa konplexua da, bi udalerririk elkarbizi direlako”. Bi udalerrien, Donostia eta Usurbilen arteko adostasuna beharko da bere ustez. “Alternatibak aztertzen saiatuko gara, Zubietako egoera txertatzeko eta zuen aldarrikapenei erantzun egokia emateko”, adierazi zion Herri Batzarrari.

PSE-tik Aitor Gonzalez hiru erakundeen arteko adostasunaren alde agertu zen. Borondate kontua dela deritzo, “borondatea ez da legeekin dominatzen, asmo eta ideia onekin baizik”.

EHBilduko Juan Karlos Izagirri ez zitzaion harrigarria iruditzen, “11.500 euroekin eta inbertsio handiak kontsultatu gabe eginda, Herri Batzarrak zerbait gehiago nahi izatea”. Zubietaren kasua, “foru arauan jasotzea da gure eginbeharra”. Bere esanetan, “legea herrien gehiengoak eskatzen duenera egokitu behar da”.

EAJ-tik Saioa Bandresek irizten zionez, “ados gaude arazoa konpondu beharrela dela, baina aurrez legea errespetatu beharra dago”. Bere esanetan, “borondatean oinarrituz, egikaritu ezin daitezkeen espektatibak sortzea nahiko arriskutsua da”.

**Uraltz, s.l.**  
Igeltzeritza  
Orokorra

693 059 392  
uraltz@uraltz.com USURBIL

**ERAMATEKO!!!**

·EGUNEKO MENUA  
·KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)

BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

# Ziortzaren kanpaldiko aurre izen-ematea apirilaren 8an amaituko da

Irekita dago hilaren 8ra arte Ziortzaren kanpaldirako aurre izen-ematea. Ohi bezala, aurten ere bi txanda izango dira uztailaren 5etik 16ra DBH3 eta DBH4ko ikasleentzat, eta uztailaren 16tik 26ra DBH1 eta DBH2ko ikasleentzat.

Aurre izen-ematea egiteko galdetegi bat bete beharko dute gurasoek. Gehiagotan kanpaldian izan diren haurren gurasoek automatikoki jasoko dute mezua korreo bidez. Hala jaso ez dutenek eta interesa dutenek, ziortzakanpaldia@gmail.com helbidera korreo bat bidali beharko dute galdetegia eskatuz. Ondoren, galdetegia jasoko dute erantzun gisa.



Aurre izen-ematea egiteko galdetegi bat bete beharko dute gurasoek.

## ZIORTZA

**“Aurre izen-emateak zenbat gazte etorriko diren estimatzen lagunduko digu”**

Galdetegian hiru datu baino ez dira eskatzen: gaztearen

izen-abizenak, maila eta laguntza berezirik behar ote duen. Azken hori beharko balitz, begirale konkreturen bat jarriko liokete gazteari.

### Galdetegiaren garrantzia

Garrantzitsua da galdetegia behar bezala betetzea

Ziortzako begiraleek aurreikuspenak behar bezala egin ditzaten: “Lortutako informazioa kalkulu-orri batera pasako da. Lana arintzeko balio digu elkartekoei, behar dugun informazioa eman beharko digutelako derrigor. Aurre izen-emate horrek zenbat gazte etorriko diren estimatzen laguntzen digu, baina izen-emate ofiziala aurrerago egingo dugu”, jakinarazi dute Ziortzatik.

Aurtengoan, Covid-19ak eraginik ez izaten ahaleginduko dira, eta Ziortza Gazte Elkartekoen asmoa pandemia aurreko kanpaldia izatera itzultzea da, eta hala izango diren esperoan daude. Gai-nontzekoan, ez dute berrikuntzarik aurreikusit.

## Plazan Bazan, 12/13 orrialdeetako soluzioak

**Sudokua**

Beheko sudoku hauek gaineko irudiko laguntxoekin ibilerekin dute zerikusia. Barraskiloea ASTIRO doa beti, eta erbia, berriz, ARIN. Osa itzazu bi sudokuek, hutsik dauden laukietan behar diren hizkiak idatziz (seiko sudokuan A, S, T, I, R eta O, eta luokuan A, R, I eta N). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela letra, zutabe eta area bakoitzeko.

**RITOSA**  
OSAIRT  
SROATI  
TAIROS  
ITRSAO  
AOSTIR

**RNAI**  
AIRN  
IRNA  
NAIR

**BILATU** Animalia hauetatik bat ez dago mundu-mapan. Zein?

**Handitik txiki**

Ordena itzazu hartz hauek handitik txiki, 1etik 9rako zenbakiek erabiliz (handienari 1 eman eta txikienari 9).

**SORTZEN DIRA LIMEAK?**

Nola lortzen dira erantzunik gehienak? GALDETUZ, jakina. Hitz ederre, sudoku handi hau osatzeko. Zortzi hizki dituzu hutsuek: betetzeko (G, A, L, D, E, T, U eta Z).

**LZAGETUD**  
**UEDTZLAG**  
**ATZUGDEL**  
**GLEDUZTA**  
**EDGZAU LT**  
**TULADEGZ**  
**DGULTAZE**  
**ZATELGDU**

**Hara!**

Gaixoak pingüinoak! Laster beren bizimodu egokitu beharko dute, Lurraren tenperatura igotzen ari baita. Bero, baina hemen ez dirudi horren gaizki daudenik ere, ezta? Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 16 dira gutxira.

**DOMINOAN**

Bete itzazu lau ki zuririk domino-zati honek zentzua izan dezan.

Eguzkia - Lurra - ilargia - meteoritoa - planeta izarra

**ETXEBIZITZA****Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trasteleku, balkoia eta terraza. 688 710 916.

**Alokairuan**

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Bi logeletako etxebizitza alokatzen dut Usurbilen. 750 euro hilabetean, maskotarik ez da onartzen. 647 58 72 58

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratu eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

**MOTORRA****Salmenta, garajeak**

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209

Garaje marra bat salgai Puntapax kalean, BM parean, 18 m<sup>2</sup>. 18:000 euro. 687 348 223.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. Interesatuok, hona deitu: 625701616.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da aste-

buruetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Zaintzaile bat behar dugu, eguneko lau ordu, Eusko Jaurlaritzaren zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabal-en. 3 astetik behin asteburu jai. 30 orduko lanaldia. 943 36 91 39.

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaerarako. Eguerdiari lan egiteko.

626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Sukaldari, zerbitzari moduan edota garbiketa lanetan orduka edo interna lanean aritzeko prest. 663499841

Hotel, jatetxe, soziedade edo etxeetako garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduen zaintza lanetan esterna moduan aritzeko lan bila nabil. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 671763558

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaquecamilo\_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak

garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkatz. Harremanetarako: 688 715 958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

**BESTELAKOAK**

Abenduaren 19an larruzko eskularru marroi bat (barrutik larru txuria duena) galdu genuen Harane futbol zelaian. Aurkitu baduzu deitu 685725681

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabetetako 5 txerrikume ere bai. 607 668 603 (Joxe Cruz)



**Zorionak Lea!** Dagoeneko eman diozu eguzkiari lehenengo bira! Zorionak tiki! Zu zara opari onena! Muxu bat etxekoan partez.



**Zorionak Egoi!** Apirilaren 7an 5 urte beteko dituzu. Muxu handi bat etxekoan partez.



**Zorionak Aratz eta Eider!** Apirilaren 10ean eta 15ean egingo dituzue urteak eta zorionak eta muxu handi bat bidaltzen dizuegu familia guztiaren partez. Ondo pasa zuen egunean!!!



**Zorionak Irai!** Apirilaren 5ean 8 urte! Muxu handi bat etxekoan partez

**Pilota partidak Usurbilen**

**Apirilak 1, ostirala, 18:30**

■ Infantil 2. mailako errendimenduko txapelketa:  
-Pagazpe 2 (Jauregi- Indakoetxea)  
-Mundarro

■ Infantil 1. mailako finalerdia:  
-Pagazpe (Alejo-Errasti)  
-Hernani

**2022 Master Cup**

**Apirilak 3 igandea, Eibarren, gurgildun aulkiko kategorian**

Finala, 12:00etan (ETB1):

-Beñat Lizaso/German Elkoro  
-Yann Meunier/Maixi Cabanne



**Beñat Lizaso eta German Elkoro finalerako sailkatu dira.**

**Futbol partidak Haranen**

**Apirilak 2, larunbata**

■ 10:00 Infantil mutilak:  
-Udarregi Usurbil FT A  
-Urnieta KE

■ 16:30 Preferente mutilak:  
Usurbil FT-Getariako KETA FT

**Eskubaloi partidak Oiardon**

**Apirilak 3, igandea, 12:00**

-Usurbil KE kadete neskak  
-Pulpo.

**Errifen sariak:**

Menua Aialde Berrin, 0319. zenbakia.  
Urdaiazpikoa Bordatxo, 1227. zenbakia.

**Jubenil mutilen balentria**

Jubenil mutilak bigarren postua eskuratu zuten Euskadiko lauko finalean eta Espainiako txapelketa jokatu dute. Zorionak!

**Goardiako farmaziak**

**Osteguna 31** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 01** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 02** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 03** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astelehena 04** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteartea 05** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteazkena 06** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Osteguna 07** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 08** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 09** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 10** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
GOMEZ BRAVO, MARINA  
Kale Nagusia, 14 Hernani  
943 55 48 92

**Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian dituzue ikusgai.**

# Agenda apirila

## 01 ostirala

■ **Sagarrondotik Sagardora ikastaroa**  
15:30-18:30, Potxoenean. Sarrerak: aurrez usurbilkultura.eus plataforman eta alkartasuna.eus web orrian.

## 02 larunbata

## 03 igandea

■ **Olatz Salvador kontzertuan, duo formatuan.** "Aho uhal" diskoaren aurkezpen-birako emanaldia. 19:00etan Sutegin. Sarrera 8 eurotan, usurbilkultura.eus plataforman.

## Igandean, Olatz Salvadorren kontzertua Sutegin

Olatz Salvadorrek bigarren diskoa aurkeztu zuen iaz: 'Aho uhal'. Hamabi kantuz osatzen da eta Rozalen, Ivan Ferreiro eta beste zenbait musikarirekin kolaboratu zuen. Disko honen aitzakian abiatutako birarekin iritsiko da kantari donostiarra Sutegira. Igande arratsaldean arituko da eta sarrerak eskura dituzue usurbilkultura.eus web orrialdean.



Igande honetan arratsaldeko 19:00etan hasiko da Olatz Salvadorren kontzertua.

Karmele Jaio idazlearen esanetan, Olatz Salvadorrek ahultasunaren indarra eta edertasuna islatzen ditu bere kanteetan: "Barruraino bustitzen gaituen zaparrada zintzo bat da. Zuzenean lotzen gaitu gure ahuldade eta hutsuneekin, eta bat-batean gogoratzen digu horiek ere badirela gure bizitzaren parte, bagarela ez garena ere, falta zaiguna, desiratzen

duguna". Gogoetarekin bat dator Olatz Salvador: "Abestiek hori dute ezaugarri komuna: islatzen dute indartsu plantak egitea nekagarria dela, eta, ezkutatu ordez, humano eta zintzoagoa izango dela agertzea benetan garen bezala, gure ahulguneak onartuta, indartzeko era bat izan daitekeelako horiek onartu, gure baitan integratu eta horietatik onena ateratzea".

## Sagarrondotik Sagardora ikastaroa

Alkartasuna baserriarren kooperatibak antolatu duen ikastaroak aurrera darrai. Ostiral honetan, bi gai hartuko dituzte hizpide.

Egoitz Zapiainek "Garbitasuna Sagardoaren kalitatearen lagun" izeneko saioa eskainiko du.

Jakoba Errekondok aldiz, "Sagardoa egurrezko ontzietan. Sagardoaren historia bat, zer ikasteko?" galderari erantzungo dio.

Ostiral honetan, 15:30ean hasita, Potxoenean. Sarrerak: usurbilkultura.eus plataforman eta alkartasuna.eus web orrian dituzue eskuragarri.

### Datozenak

#### Badator Korrika

Apirilaren 8an ostirala, goizeko 06:26ean iritsiko da Korrika gure artea. Aginaga aldetik helduko da euskararen aldeko karabana Usurbilera eta kaxkoa zeharkatu ondoren, Santuenetik barrena abiatuko da Zubietara.

#### 10. Dantza Egunerako prestatzen

Apirilaren 9an Dantza Eguna ospatuko da eta pare bat ohar helarazi dizkiote NOAUA!ri Orbeldiko kideek.

#### Herri bazkarirako txartelak salgai

Batetik, herri bazkari baten bueltan urteotako kide guztiak bildu nahi dituzte. Txartelak Txiribogan eta Artzabalen izango dira salgai; 15 eurotan bazkaria eta 25 eurotan kamiseta eta guzti. Bazkalosterako, tranpaldo irekia antolatu dute. "Aurrez etxean koreografia bat prestatu eta gainerakoei emanaldia eskaini nahi diotenei horretarako aukera izango dute. Parte hartzeko izena usurbildantzan@gmail.com helbidean eman beharra dago".

#### Dantzarien Topaketa, apirilaren 30ean

10. Dantza Egunarekin batera, bosgarren Dantzarien Topaketa antolatu dute apirilaren 30erako eta Dantzari Txikien hirugarren topaketa maiatzaren 7rako.

**Artzi**  
Partenarietara  
bazarriak EGUNERO  
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA  
☎ 943 362725  
☎ 688 690 361

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO  
Kale Nagusia 10, 1.C4 RPS: 19/22 20170  
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

Josue  
Igeltseritza  
☎ 606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL



**ORIANTE**  
Institutua

**2022-2023**  
**ikasturtea**  
**BATXILERGOA**

**ON-LINE /**  
**IKASTETXEAN**  
martxoaren 28tik  
apirilaren 8ra

- ✓ Zientziak eta Teknologia
- ✓ Giza eta Gizarte Zientziak

 Publikoa

943 89 94 94 943 89 94 92 [www.oriarte.eus](http://www.oriarte.eus)

**BAZKIDEEN TXOKOA**  
noaua! euskararen aterpe



**KORRIKAKO PRODUKTUEN**  
**Bi LOTE**  
zozketatuko ditugu  
**NOAUAIko bazkideen artean**

Bazkide egiten bazara, zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)

# URDAIRA

## Sagardotegia

astelehenak itxita

**Aginaga 943 37 26 91**



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



## LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzak 1era  
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan  
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



## ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81

## SAIZAR

Sagardotegia

[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)



943 37 39 95



## SAGARDOTEGIA

### aginaga

URTE OSOAN  
ETXEAN EGINDAKO  
SAGARDOA  
astelehenetan itxita

osasun neurri guztiekin

Tfn-fax: 943 36 67 10  
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL  
info@aginagasagardotegia.com  
www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!

**ORDUTEGIA:**

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenea

